



**Gure Esko Dago sarea osatzen.**- Larunbatean Lasarte-Oriako hainbat herritarrek Gure Esko Dago ekimenarekin bat egin eta eta erabakitze eskubidearen aldeko oihala jaso eta kalejira ederra egin zuten. Eguraldia lagun, herritarrek Andatza plazan bildu eta oihal zatiak banatu ziren. Ostean, musika eta txistularien laguntzaz, herriko kaleak koloreztatu eta alaitu zituzten. Lehen geldialdia Isla plazan egin zuten. Antolatzaileek oihal koloredun bat atera eta zatieta marraztera edo 'Jende zorionsua herri libre batean' leloa idaztera gonbidatu zituzten herritarrek. Hauek ederki erantzun zuten eta Lasarte-Oriako artista ugari dagoela ikusi ahal izan zen. Jarraian, kalejira Okendora hurbildu eta bertan apaindutako oihal zatiak zintzilikatu zituzten. Lasarte-Oriako Gure Esko Dago ekimenak gaur burutu duen kalejira, apirilaren 25ean egingo den ekintzaren aurrekaria dugu. Egun honetan oihal guztiak josiko dituzte, oihal handi eta bakarra bat osatuz. Horretarako, 75 tutore eta 1.500 saretu lortu nahi ditu ekimenak. Egun, 45 tutore eta 900 herritar inguru ari dira ekimenaren parte hartzen. Hori dela eta, Gure Esko Dago ekimenak, tutore edo saretu bezala, erabakitzearen alde ehortzen ari den sarea parte izatera gonbidatu nahi ditu herritarrek.



### 3 HAUTESKUNDEAK EAJk udal hautagaitza aurkeztu zuten

Eusko Alderdi Jeltzaleak udal hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu zuten larunbatean Villa Mirentxu egoitzan. Jende gazte eta eskarmentukoa nahasten dituen talde honek helburu bakarra du, alkatetza lortzea. Horretarako pertsonetan oinarritzen den proiektua lantzen ari direla jakinarazi zuten.



### 5 GIZARTEA Martxoak 8a, aldarrikapen eguna

Emakume langilearen nazioarteko eguna zela eta, atzo Lasarte-Oriako Udalak eta Emakumeen Zentroak antolatuta hainbat ekintza burutu ziren Okendo plazan. Emakumearen eskubideak aldarrikatu zituzten elkarretaratze eta argazi-mural baten bidez. Baina ez dira asteburu honetan izan diren ekitaldi bakarrak izan.

Eta  
hautako  
garbigailu  
bat erostea  
**70€**-tan  
balioetako  
mahai-tresneria  
hau **OPARI**

**ZANUSSI**  
7 k. 1200 rv.  
A+++  
**319€**

**AEG**  
8 k. 1200 rv.  
Display - A+++  
**429€**

**BALAY**  
6 k. 1000 rv.  
Display - A+++  
**319€**

**Bideo TIEN 21  
Lagunak**

Etxekotresna  
elektrikoetan  
adituak

**12** ORDAINDU  
HILABETETAN  
INTERESIK GABE  
TIN: 0% TAE: 0%

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com

## ESKOLAKO AGENDA 21

# Ikasleak elikadura jasangarria lantzen

Agenda 21 programaren baitako ekintza burutzen ari dira herriko LHko ikasleak

Lasarte-Oriako LH-ko ikasleak, Eskolako Agenda 21 programaren bidez, beraien eskola eta herria jasangarritasunerantz bideratzen saiatzen ari dira. Helburua, eskola-komunitateak ingurugiroaren alde kontzientzia eta ohitura desberdinak bereganatzea da, herritar bezala parte-hartzea bultzatuz.

## TXINTXARRI

**L**Hko bi ikastetxeetako 1.300 ikasle inguru ari dira Eskola Agenda 21 proiektuan parte-hartzen beraien ikas-komunitate osoan inplikazioarekin.

Eskolako Agenda 21ak, hiru ardatz nagusi lantzen ditu: kurrikuluma, ikastetxearen kudeaketa eta parte-hartzea herrian. Atal hauek gai desberdinen inguruan landu izan dituzte: ura, biodibertsitate naturala, aniztasun kulturala, elikadura...

Hasteko, ikastetxea bera aztertzea tokatzen da. Diagnostikoa egin ondoren, zertan hobetu daitekeen aztertu behar da eta ekintza plan bat osatua.

Ondoren, ikastetxe inguruko auzoan gertatzen dena aztertzen dute.

Herri mailako partaidetza lantzeko, ekintza batzuk burutzen dituzte bai ikastetxean eta baita ikastetxetik kanpo ere, eta ondoren, lortutako emaitzekin, norberak bere egunerokotasunean bete beharreko hainbat konpromiso hartzeaz gain, ikusitako gabeziak konpontzeko proposamenak luzatuko dizkiete Udal ordezkariari, ikasturte bukaeran Alkatearekin burutuko den entzunaldian.

**Elikadura ardatz**

Aurtengo gaia, "Elikadura jasangarria" da eta iazkoaren jarraipena da.



LHko gaztetxoak taloak egiten, elikadura jasangarriaren baitako ekintzetan.

ARTELATZ

Une honetan, adinaren araberako lanak egiten dituzte. Txikiak horma-irudi eta jolasen bidez elikagaiak ezagutzen ari dira. 6-11 urtekoak berriz, elikadura eta osasuna, elikadura eta sortzen ditugun hondakinak, "kontsumo taldeak", kontsumitzeko beste modu bat... gaiak lantzen ari dira.

Beraz, HH eta LHko ikasleak buru-belarri dabilta lanean, herria "geroz eta jasangarriagoa" bilakatzen laguntzeko.

**Gai ezberdinak landuz**

Programaren bultzatzailea Lasarte-Oriako Udala da, Artelatx Ingurugiro Zerbitzuak

enpresaren laguntzarekin. Ez da lanketa honen lehenengo urtea. Dagoeneko hainbat izan dira azken sei urteetan Agenda 21 ekimenaren baitan herriko eskoletan landu diren gaiak. "Ura" eta "Biodibertsitatea (naturala eta kulturala)" landu dituzte ikastetxeetan orain arte.

## Enpresa Haztegiaren akordioa bete dadin eskatu du PSE-EEK

Jesus Zaballos sozialisten alkategaiak salatu du Bilduk "errespetu demokratiko gutxi" duela. Udalbatzarrean euskaltegi zaharreko lokalak Enpresa Haztegirako zein coworkinerako erabiltzea erabaki zen, baina koalizio abertzaleak erabaki hori ez du bete.

"Badirudi Bilduri demokraziaz ikasteko asko falta zaiola, batez ere gehiengoarekiko errespetua falta du, beraien bezala pentsatzen ez duen gehiengo ez du errespetatzen", adierazi du Zaballosek ohar bidez.

Sozialistek azaldu dute Bilduk azken egunotan lokal horiek herriko zenbait elkar-

teri eskaini dizkiela, horietako batzuk gainera "izaera juridikorik" ez duten elkar-teak direla ohartarazi dute: "Bilduk urgentziaz lokal horien esleipena lotuta utzi nahi du, hiru hilabete barru hauteskundeetan ostan alkatetzan izango ez diren beldurrez daude", dio alkategai sozialistak.

Bestalde, Enpresa Haztegiarekiko Bilduk duen "utzikeria" larritzat jo du PSE-EEK. 2014eko aurrekontuetan 25.000 euro bideratu zirela gogorarazi dute lokal horiek Haztegiarentzat izan zitezela.

"Jarrera honekin Bilduk erakusten duen bakarra da ez duela Lasarte-Orian enplegua

sortzeko lan egiten. Ez haztegiarik, ez obrarik ezta deialdi publikorik ere herriko ekintzaileentzat espazioak sortzeko, ez ditu euren eskariak entzuten", esan du Zaballosek.

Bestalde, Bilduk egiten duen elkarrean erabilera kritikatu egin du: "Elkarrean eta Udalaren artean gatazka sortu nahi dute, hori da euren asmoa".

Amaitzeko, Jesus Zaballosek esan zuen euren hauteskunde-programan euskaltegi zaharreko lokalak Enpresa Haztegi bihurtzeko proposamena txertatuko dutela, "Bilduk ez badu legegintzaldia amaitu baino lehenago erabakitakoa egiten".

## Argazki lehiaketa antolatu du Sasoeta-Zumaburuko guraso elkarteak

Sasoeta-Zumaburuko ikastetxeko guraso elkartearen Kultur Aniztasun batzordeak antolatuta, argazki lehiaketa bat egingo da Lasarte-Orian. Eskolako zein institutoko guraso eta ikasleei zuzendutako lehiaketa da eta gaia 'Nire herrialdean bizi izandakoaren oroitzapenak' da.

"Gure eskolan munduko jatorri ezberdinetako pertsonak daude eta beraien jatorrizko herrialdearen jendea, paisaiak, jaiak eta abar ezagutu nahi ditugu", adierazi dute Burunzpe Guraso Elkartearen kideek.

**Lehiaketaren baldintzak**

Parte-hartzaile bakoitzak hiru argazki eraman ditzake, eta erabaki lehiaketarako horietako zein aurkeztu nahi duen.

Edozein motatako argazkiak onartzen dituzte, paperean edo euskarri digitalean.

Argazkiak [foto@burunzpe.net](mailto:foto@burunzpe.net) emailaz bidali daitezke edota disko edo pendrive batean gordeak ere entregatu daitezke. Martxoaren 22ra arte dago argazkiak aurkezteko epea.


Argazkiak erakusketa batean ikusi ahal izango dira, apirilaren 20-26a bitartean ospatuko den kultur Aniztasun arteko astean. Sarien banaketa apirilaren 25ean izango da, larunbatean, Sasoeta ikastetxean.

Lehenengo eta bigarren sailkatuentzat saria izango da, bi laguntzako bazkari bat.

Herritarrak argazkiak bidaltzea animatzen dituzte.

### Diruz laguntzen duten erakundeak

#### Babeslea



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

#### Laguntzailea



#### Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557  
**Legezko gordailua:**  
SS513/93  
**ISSN:** 1134-0053  
**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.  
**Aleak zenbakiko:** 7.800

#### txintxarri

#### Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Jon Altuna,  
Nerea Eizagirre  
**txintxarri@txintxarri.info**  
**Publizitatea eta administrazioa:**  
Arantza Artola  
**publizitatea@ttakun.com**  
**administrazioa@ttakun.com**  
**Laguntzaileak:**  
Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier  
Odriozola, Maider Seguro, Jexux  
Artebe, Gorka Alvarez, Pako  
Aizpitarte, Edu Galardi  
**Informatikoa:**  
Xabier Amadoz

## UDAL HAUTESKUNDEAK

## Eskarmentua eta gaztetasuna

## EAJk hauteskundeetarako hautagaitza aurkeztu zuen

Udal hauteskundeak gero eta gertuago ditugu. Alderdiak haien hautagai zerrendak itxi eta hautagaitzak aurkezteko garaia iritsi da. Larunabta eguerdian Eusko Alderdi Jeltzalearen txanda izan zen. Estitxu Alkorta EAJko alkategaiak zerrenda aurkezteaz gain, alderdiaren helburuak eta proiektuaren oinarria azaldu zituen Villa Mirentxu egoitzan egin zen agerraldian.



EAJ alderdiko udal hauteskundeetako hautagaitzak zaletuen babesa izan zuen agerraldian.

## TXINTXARRI

EAJ alderdiak udal hautagaitza sendoa eta elkartua aurkeztu duela azpimarratu zuen Alkortak agerraldian. Taldearen helburu alkatetza da, "ez dut ezkutatu nahi eta esaten dut uste dudalako garai hauetan guk hobeto egin dezakegula," adierazi du.

EAJko alkategaiaren aburuz, "Eusko Alderdi Jeltzalea benetakoa alternatiba da Lasarte-Orian, proiektu sinesgarria eta zintzoa aurkeztu duena, errealitatean oinarritua eta demagogia eta populismorik gabeta. Eusko Alderdi Jeltzaleak Lasarte-Oriako alkatetza lortzeko aukera inoiz baino gertuago du, Bilduk azken lau urte hauetan udaletik erakutsi duen ezintasuna eta PPK eta PSOEk krisiari aurre egiteko ezintasunak eta ahuleziak horretarako bide ematen dute".

## Kudeaketa eta pertsonak

Era honetara, irabaziz gero udal kudeaketan arlo publikoan, zein pribatuan dute eskarmentua erabiliko dutela azpimarratu du alderdi jeltzaleko alkategaiak. "Hemengo jendearen sentimenduak ezagutzen ditugu, gure sentimenduak direlako eta gainera kudeaketan eta lanean trebeak gara, beti gure herritarren zerbitzura," atxiki du.

Izan ere, pertsona izan behar da sistemaren ardatz nagusia Estitxu Alkorta alkategai jeltzalearen hitzetan, "personentzako eta pertsonengatik egiten dugu lan. Eta hori da gure politikaren adierazgarri nagusia".

Hori aurrera eramateko Lasarte-Oriako Eusko Alderdi Jeltzalea hausnarrean eta lanean ari dela ere jakitera eman du, "Lasarte-Oriako gizarte eragile guztiekin hitz

egiten, euren iritziak, ekarpenak eta, zergatik ez, kritikak ere partekatuzko eta horrela, guztiona izango den Lasarte-Oriako etorkizunerako proiektu bat burutu ahal izateko. Hori izango da gure herritarrei aurkeztuko diegun eskaintza".

## Zerrenda

Honako hau dugu EAJk udal hauteskundeetara aurkeztu duen hautagaitza: Estitxu Alkorta, Jon Antxordoki, Boris Nogales, Maria Jesus Iraola, Maria Inmaculada San Sebastian, Goizalde Pildain, Oscar Sevilla, Aizpea Garcia de Andoin, Elisabet Iradi, Santos Aranzazistoki, Lourdes Yorza, Juan Maria Alkorta, Peio Ormazabal Mendiguren, Araceli Diaz de Alda, Juan Maria Iradi, Calixto Maritxalar, Maria Concepcion Alonso, Luis Maria Ansa, Manuel Arroyo eta Maria Soledad Tejeria.

## UDALBATZARRA

## Kontu emateak eta hainbat mozio

Bihar arratsaldean, 18:30etatik aurrera, ohiko Udalbatzarra egingo da Udaletxeko batzar-aretoan.

Honetan hainbat kontu emate, eskaera eta mozio izango dira hizpide. 2015. urtean egin diren kreditu aldaketen berri emango da, baita 2014. urtean udal kontuhartzaileak bideratu dituen erreparoa ere.

PSE-EEK batzar informatiboetako kide berrien berri eman du eta bi mozio aurkeztuko ditu, bata Correoseko langile murrizketaren aurkakoa eta bestea Aterpea merkataritza elkarteari lokala lagatzekoa.

Lasarte-Oriako Podemos-Ahal Dugu alderdiak ere mozio bat aurkezteko aukera izango du, Kutxabanki Oria auzoan kutxazain bat jartzeko eskatuz.

Udal Gobernuako kideek bestalde, aldaketa eskaerak egingo ditu, hala nola Atsopakar egoitzaren kudeaketa eskualdazteari buruzko hitzarmenaren aldaketa edo hiru lanposturen hizkuntza-eskakizun eta derrigortasun-datena.

Honetaz gain, Udal langileen hizkuntzazko prestakuntza arautzen duen ordenantzaren puntu bat moldatzea ere aztertuko da.

## GAZTE-KLUBA

## Udalekuen argazkien emanaldia

Iaz Gobiaren eta Donemiliagako udaleku itxietan egon ziren gaztetxoentzat argazkien proiektzioa egingo da datorren ostiralean, martxoak 13, 17:30ean Gazte Klubean, Ola kalean, 1 zenbakian. Egonaldi horietan bizitako hamaika abenturak gogoratu ahal izango dituzte gaztetxoek udara gerturatzen ari den honetan.

## AISIA

## Familian Cookie-ak egiten ikasteko aukera

Solaskide eta Amaraun klubak Gabonetan egindako talo ikastaroak izandako harrera ona ikusita, elkarrekin antolatu dute sukaldean aritzeko beste ikastaro bat. Kasu honetan Cookie-ak egiten ikasiko dute parte hartzaileek Leire lartzaren gidaritzapean.

Hasiera batean bi saio egongo dira aukeran gailera goxo hauek nola egiten diren ikasteko, martxoaren 23an, astelehena, 18:00etatik 20:00tarako ordutegian edo martxoaren 28an, larunbata, 11:00tik 13:00ra.

Aurrez honetan izena eman beharko da Ttakuneko bulegotik pasata, [aisia@ttakun.com](mailto:aisia@ttakun.com) edo [solaskide@ttakun.com](mailto:solaskide@ttakun.com) helbidetara idatzi edota 943 37 14 48 telefonora deituta. Solaskideak bakarrik etorri daitezke eta familiak, heldu eta haur batez osatutako bikoteak izan beharko dute. Hau da, haurrak ezingo dira bakarrik joan.

## Baketik eta 2016 fundazioen eskutik antzerki-foruma

Lasarte-Oriako Udalaren Laguntzarekin, Donostia 2016 Kultur Hiriburutzak eta Baketik Fundazioak "Antzerki-foruma: Eta hik zer?" proiektu ibiltaria ekarriko dute herrira. Ekimena udala azken hilabeteotan bizikidetzaren inguruan egiten ari den lanketaren baitan dago.

Egungo testuinguru sozial eta politikoan bizikidetzaren eta adiskidetzaren sustatu asmoz sortutako egitasmoa da honakoa, Antzerki-forum metodologiaren bitartez hiru galderen inguruan hausnartzeko aukera izango da; zer gertatu da eta zergatik? Zer egin dezakegu orain? Zer egin dezakegu etorkizunean errepika ez dadin?

Bi saio eskainiko dira. Lehena, euskarazkoa, asteaz-

kenean, martxoaren 11n izango da, Udal Euskaltegiko aretoan 18:00etatik aurrera. Gaztelaniazkoa, berriz, apirilaren 15ean izango da, ordu eta leku berean. Lantegia egiteko gutxieneko talde bat osatu behar denez, joan asmo duenak izena eman dezaten dei egin dute antolatzaileek. Horretarako 688 681 466 telefonora deitu beharko da edo [antzerki@foruma@dss2016.eu](mailto:antzerki@foruma@dss2016.eu) emailera idatzi.

## Bi zatiko saioa

Saioa bi zatitan banatzen da: lehen zatian, edonork egunerokoan izan ditzakeen gatazken inguruko sei istorio labur aurkeztuko dira. Ondoren etorriko da elkarriketarako tartea. Bigarren zati honetan, istorioek amaiera

positiboago bat izateko egin beharko liritekeen aldaketa txikien inguruan galdetuko zaie ikusleei.

Bat-bateko iradokizunak izango dira eta nahi duenak, praktikan jarri ahal izango ditu aldaketa horiek, taula gainean aktoreen eta gidoigile eta zuzendari bihurtuko diren gainerako ikusleen laguntzaz, iradokizun horiek istorioetan txertatu eta antzeztuz. "Metodo hau izan daiteke, beraz, bizitza errealean egin nahi ditugun aldaketetarako entsegu bat, jarrera pasibo batetik jarrera aktibo batera igarotzeko zubia. Bi orduko esperientzia pertsonal bat da, gure iragan hurbilera so egin eta etorkizun kolektibo beste ikuspegi batetik begiratzeko aukera ematen diguna".



Bi saioa egingo dira, asteazkenekoa euskaraz izango da.

Ehun antzerki-forum saio egingo dira eta horietan parte-hartzaileek etorkizunerako dituzten desira eta konpromisoak biltzea da asmoa.

"2016an desira eta konpromiso horiek jendaurrean jarriko dira, etorkizunaren bidean gizartearentzat lagungarri eta inspirazio iturri izan daitezkeen".

# Bat-bateko polita Arrieskalletan

## Eskolarteko bertsolaritza txapelketako saioa izan zen

Eskolarteko bertsolaritza txapelketaren edizio berria martxan da. Idatzizko, zein bat-bateko lanetan mila bat gaztek parte hartuko dute aurten. Gipuzkoako hainbat herrietan egingo dira saioak eta ostiralean Lasarte-Orian izan ziren. Bat-bateko saioa Arrieskalleta elkartearen burutu zen eta ederki gozatu ahal izan zen etorkizuneko bertsolari hauen lanarekin.



Ederki egin zuten lan sei bertsolari gazteek Arrieskalletako saioan. BERTSOZALE ELKARTEA

TXINTXARRI

Jon Otegi, Jokin Irastortza, Iraitz Mateo, Asier Ibarguren, Andoni Mujika eta Beñat Clemente izan ziren Lasarte-Oriako finalurrekoan bertsotan egin zuten sei bertsolari gazteak. Gai-jartzaile lanetan berriz, Iker Iriarte eta Iñaki Rezusta aritu ziren.

Afaldu aurretik zozketa egin zuten eta afalostean ekin zioten saio puntuagarriari.

Hasierako agurrak nahi izan zuten doinu eta neurrian bota ostean hasi zituzten ariketa puntuagarriak. 4 oinak emanda 8ko txikian bertsotatu; binaka gaia emanda 8ko handian bina bertsotatu; binaka

eta hirunaka gaia emanda hiruna koplak trikitiarekin; bakarka puntuari erantzun eta gaia emanda bertso bat gehiezin 5 puntuko neurrian.

Amaitzeko, lege onean, bukaerako agurra eskaini zieten ikus-entzuleei.

Saioa alai eta arina izan zen Arrieskalletan bildu ziren lagun eta bertsolariek entzun zutena.

Saioaren lehen bi sailkatuek Asier Ibarguren eta Andoni Mujikak Irunen, apirilaren 26an izango den Gipuzkoako Eskolarteko finalean abestuko dute Hernani, Zarautz, Elgoibar eta Azkoitiko finalerdietako aukeratutako gaztetxoaren aurka.

### Txapelketa

Gipuzkoako bertso-eskolen Elkarteak, Bertsozale Elkarteak eta Ikastolen elkarteak berriro ere elkarlanean Gipuzkoako Eskolarteko txapelketa antolatu dute.

Honek bi atal ditu, idatzizkoa eta bat-batekoa.

Idatzizko sariketan Gipuzkoa osoko 234 ikastetxeek parte hartuko dute. Bat-bateko bost saioetan, berriz, 15 eta 18 urte bitarteko 27 bertsolari izango dira lehian.

Apirilaren 26an Irunen izango den Gipuzkoako Bertso-Eskolen Egunean emango zaio amaiera ederra txapelketari.



Mollie Malone neskatok mundu berezi baterako atea aurkitzen du liburutegian.

## Aldaketa klimatikoa haurrei azaldua

TXINTXARRI

Larunbata arratsaldean, Letzeko txikiak 'Mollie Malonen istorio sineztezina' antzerkiarekin gozatu ahal izan zuten Manuel Lekuona kultur etxean.

Abentura ederrean murgildu ziren Txalo produkzioak taldeko lagunentzat.

Era berean, lagun berriak ezagutu eta aldaketa klimatikoa zer den ikasi zuten.

### Mundu ezezaguna

Izan ere, Mollieren aitona baratza zoratu da, tomateak behar baino lehenago gorritu dira, izozte batek letxugak alferrik galdu dizkio, babarrunak ez dira loratzen...

Beraz, aitona Mollie liburutegira bidali du zer gertatzen den jakitera.

Baina, liburutegi honek berezitasun bat du. Mollie liburuak aurkitu eta erdi ezkutuan dagoen atea irekitzen zaio. Sartu eta mundu ezezaguna eta berezi bat aurkitzen du.

Bertan Tuko txori mokoluzeraz hizlaria ezagutzen du, baita beste zenbait pertsonaia arraro ere, hala nola, urtarok.

Hauei esker, Mollie gaizto indartsu bati aurre egin behar diola jakiten du, aldaketa klimatikoari eta hamaika abentura biziko dituen horretarako.

Txalo produkzioak lagunentzat eszenografia txiki eta soinu eta argi jokoekin haurrak liluratu zituzten. Antzerki amaieran txalo zaparrada batekin eskertu zuten aktore eta taldearen lana.



Munnteri-AEK ikasleek adi jarraitu zituzten Ane Labakaren azalpenak. MUNNTERI-AEK

## Bertsotan lehen urratsak eman zituzten Munnteri AEKko ikasleek

Munnteri-AEK euskaltegiko ikasleek bertsoei buruzko bi saio berezi izan zituzten.

Ane Labaka bertsolariak bertsoen inguruan hainbat azalpen eskaini zituen hurbildu ziren ikasleei, hala nola, bertso bat zer den, bukaerak nola pentsatzen diren.

Honetaz gain, lehengo eta gaur egungo bertsolaritzari buruz ere mintzatu zen Labaka.

Honekin lotuta, doinuak nola aldatu diren ere hitz egin zuten.

### Bertso-korrika

Munnteri-AEK-ko arduradunek azaldu digutenez, saio hauek martxoaren 13an egingo den Bertso-Korrikaren aurrekari dira.

Ane Labaka, Asier Azpiroz eta Unai Mendizabalek abestuko dute ekimen honetan. Gai-jartzaile lanetan Amaia Agirre izango da.

## Bikain Andoaingo 10. Piano Jaialdian

Andoaingo Piano Jaialdiaren 10. edizioa burutu zen otsailaren 28 eta martxoaren 1ean, Bastero Kultur-gunean.

Urtetik urtera jaialdi honek arrakasta handiagoa du, izan ere, helburua, bakoitza bere buruarekin lehiatzea da eta ez aldamenekoekin. Horregatik, partehartzaile kopurua handitzen doa eta aurten musika eskola eta kontserbatorio ezberdinetako 874 piano ikasleek hartu dute parte, 6 urtetik 18 urte bitartean.

### Lasarte-Oriako ikasleak

Lasarte-Oriako Musika eskolako 17 piano ikasle ere bertan izan ziren.

11 urte arteko A mailan, Unax Goenaga, Haritza Díaz De Gereñu eta Letxuri Díaz izan ziren; B mailan, aldiz, Leire Díez, Izaro Lizartza, Leire Martín, Ainhoa Martín, Irene Rodríguez, Jone Castro, Valeria Fadrique, Sara Etxeberria, Sara Segurado, Ainhoa



Andoaingo Jaialdian parte hartu zuten Musika eskolako gaztetxoak. LO MUSIKA ESKOLA

Bailo, Aiora Casado, Jaione Martos eta 14 eta 18 urte bitarteko C mailan Irene Carques eta Sara Rubio.

Gaztetxoek epai-mahaia-aren iritziaren arabera urrezko, zilarrezko zein brontzezko

dominak eta diplomak jaso zituzten.

Giro ederra izan zen eta Lasarte-Oriako Musika eskolako lagunentzat antolatzaile eta bolondresak zoriondu nahi dituzte egindako lanarengatik.

# Emakumeen eskubideen aldarria

Emakume langilearen nazioarteko eguneko ekintza ugari izan da asteburuan

Emakume langilearen nazioarteko eguna ospatu zen atzo mundu mailan. Lasarte-Orian egun hau gogoratzeko egitarau anitza izan da azken astean, antzerkia, hitzaldia, gazteen hausnarketa. Adin, zein genero ezberdinetako lagunek parte hartu edo gozatu dute ekintza hauetaz. Elkarretaratze eta argazki-marrakzi mural batekin eman zitzaizkien atzo amaiera ekimenei.

TXINTXARRI

O kendo plaza izan zen atzo Emakume langilearen eguna aldarrikatzeko gunea. Hainbat ekintza burutu ziren martxoak 8ko egunaren egitarauari amaiera emateko. Eguraldia lagun herritar ugari hurbildu zen plazara.

Semblante Andaluz elkarreteko Zambra dantza taldeak eman zion hasiera ekitaldiei.

Sevillanak, pasodoblea... eguerdia alaitzeko emanaldia eskaini zuen taldeak.

Ostean, elkarretaratzea egin zen egun berezi hau gogora ekarriaz. Honetan Pablo Barrio alkatearen eta hainbat zinegotziren babesa izan zuten herriko emakumeek.

Bitartean, Gazte Klubeko gazteek egindako argazki-marrakzi murala izan zen ikusgai.

Honetan, gaztetxoek koloreztutako arlo ezberdinetan

nabarmendu diren emakumeen marrakziak eta argazkiak zeuden itsatsiak.

Azkenik, Amalur trikiti eta pandero eskolako lagunen laguntzaz, kalejira alaia izan zen herriko kaleetatik barrena.

## Egitaraua osatuz

Baina aipatu legez, egun seinalatu hau gogora ekartzeko beste hainbat ekintza izan dira asteburuan.

Ostiral arratsaldean Manuel Lekuona kultur etxera hurbildu ziren herritarrek Lan eta Lan antzerki taldeak eskainitako Moliéren 'Tartufo' emanaldiaz gozatu ahal izan zuten.


Herritarrek Orgon burgesaren familiaren egunerokoa sartu ziren Tartuforekin batera. Honek hainbat gorabehera sortzen ditu familian.

Senide eta aitaren tirabirak eta Tartuforen trikimailuek ikusleen onespena izan zuten eta amaieran txalo zaparrada eskaini zioten antzerki taldeari.



Ikuskizunaren ondoren, Semblante Andaluz elkarteak izan zen herriko emakumeen bilgunea eta Jesus Zaballos PSE-EEko zinegotzia izan zuten lagun. Afari gozoa dastatu eta ostean, dantzaldia izan zuten.

Larunbata goizean, berriz, Amaia Arriaran ipuin-kontalariaren eskutik 'Do, re, mi, golkoa bete ipuin' saioa izan zen kultur etxean. Ehundaka istorio eta protagonista ezagutu zituzten hurbildu ziren herritarrek, baita abesti berriak ere.



Dantza, elkarretaratzea, argazki eta marrakzi murala eta kalejira izan ziren atzo.

## Escudero kontserbatorioko ikasleen gitarra entzunaldia

Martxoaren 13an, ostiral honetan, 'Francisco Escudero' kontserbatorioko gitarra ikasleek kontzertua eskainiko dute Brigidatarren komentuan, arratsaldeko 19:30ean hasita.

Eguzki Aginagalde, Ilazki Aginagalde, Paul Urriaga, Iñigo Caballero, Cristina Borda, Marcin Kawka, Paula Brotons, Nuria Culla eta losune Marin gitarra-jole gazteek hainbat obra interpretatuko dituzte.

Besteak beste, J.S. Bach, F. Tárrega, A. Barrios, H. Villalobos, H. Newsidler, J. Van Hausen eta F. Schubert maisuen lanak joko dituzte.

"Francisco Escudero kontserbatorioko gitarra ikasleek interpretatuko dituzten obrak instrumentuaren errepertorioko etapa ezberdinetakoak dira. Modu honetan, XVI. eta XVII. mendeko laute eta bihuela sokazko instrumentuentzat egindako obrak joko dituzte. Era berean, autore klasikoak entzuteko aukera ere izango da. Bakar-

lariez gain, duoak, hirukoteak eta gitarra laukoten lanak gozatzeko aukera ere izango dute lasarteoritarrek", adierazi dute antolatzaileek.

Danok Kideko lagunek kontzertu ederra izango dela uste dute, eta eurek antolatutako emanaldiak azken aldian izaten ari diren harrera beroa errepika dadin nahi dute.

## Kontserbatorio famatua

Herrian izango dugun 'Francisco Escudero' Musika Kontserbatorio Profesionala, Gasteizko 'Jesus Guridi' eta Bilboko 'Juan Crisostomo Arriaga' kontserbatorioarekin batera, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren baitako Maila Profesionaleko musikarirakuntzako hiru eskoletariko bat da.

Kalitatezko musika-kultura bultzatzea da euren asmoa, ikasleak formatzearekin batera. Lasarte-Orian izango ditugu ostiralean Brigidatarren komentuan, arratsaldeko 19:30etik aurrera.



Tomas Ruti herritarrek poesia zatiak irakurri zituen, Rosat eta Telentik doinu ederrak eskaintzen zituzten bitartean.

## Kontzertua Atsobakarren

Gainera, musika eta poesia errezitaldia izan zen atzo herrian, Atsobakar egoitzan Carlos Rosat (flauta), Mario Telenti (pianoa) eta Tomas Ruti (ahotsa eta fagota) herritarren eskutik.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoko musikariak dira hirurak, eta doan eskaini zuten

Danok Kidek antolatutako emanaldia. Besteak beste, Marin Marais, Luis Vázquez del Fresno, Ruben Darío, José de Olaizola, Josep Maria Guasch eta Andrés Ysasi autoreen obrak eskaini zituzten herritarrek giro goxo eta intimoko kontzertuan.

Ikusleek Rosat, Telenti eta Ruti musikarien lana estimu

handitan jaso zuten eta herriko edadetuek eta familiek goiz polita pasa ahal izan zuten piano, fagot eta flautaren doinuak entzunez.

Momentu berezia ere izan zen hasieran. Musikariek emakumei eta batez ere, Rosario Galani, atzo 103 urte betetzen zituen, abesti bat eskaini zieten eta.

## ESKIA.-

# Enara Fernandez Europako txapelketan izango da

Apirilaren 1ean eta 2an La Molinan lehiatuko du kontinenteko eskiatzaile onenekin batera

Katalunian, Geronan izango du Enara Fernandez 13 urteko eskiatzaile gazteak orain arteko txapelketarik garrantzitsuenak. Ia hilabete geratzen den arren, sasoi puntu onean dago lasarteoriatarra. Espainiako ranking-eko burua da eta orain aurrerapausoa emanda, Europan bere lekua zein den jakin nahi dute Fernandezek berak eta baita Iraitz Etxarri gidariak ere. Ikusmen urritasuna du Enarak, baina ausardiarik ez zaio falta.

## JON ALTUNA EGITEGI

Izabek anaia eskiatzera eraman eta hark ere eskiatu egin nahi zuela tematuta hasi zen Enara Fernandez txikitik elurarekin jolasten. Urtea joan eta urtea etorri gora egin du herriko gazte-txoak eta jolasa lehiaketa bihurtu da modu natural batean. Apirilaren 1ean eta 2an La Molinako eski estazioan orain arteko txapelketa garrantzitsuenari egingo dio aurre, Europako Txapelketan puntuagarria den lau probetako bati hain zuzen.

## Kontinente mailan

"Ondo gaude, horregatik animatu gara. Europako txapelketan indarrak neurtu nahi ditugu besteekin, nibela zein den ikusi eta gure burua kokatzeko", dio Iraitz Etxarri gidariak.

Jakina, kontinente mailako eskiatzaile onenak izango dira La Molinan. Gainera, kategoria bakarrean lehiatuko dute, seniorrenean. Izan ere, Espainia mailan hiru kategoriatan lehiatzen dute, infantil, jubenil eta seniorretan. Europan berriz, guztiak batu eta senior mailako txapelketa soilik antolatzen dute. Ez hori bakarrik, Fernandezek 13 urte bete arte itxaron behar izan dute legez parte-hartzeko gutxieneko adina izan zezan.

Parte-hartzaile gazteenetakoa izan arren, gutxi egongo dira herritarraren ilusioa berdintzen dutenak. Dena den, Iraitz Etxarri gidariak oinak lurrean dauzka: "Txukun moldatzeko aukerak badauzkagu, baina helburua bestelakoa da, esperientzia hartzen joan eta beste maila batean estreinatzea. Momentuz ez dugu serioegi hartu nahi izan. Ikus-



Iraitz Etxarri eta Enara Fernandez Europako Txapelketara joango direla iragartzeko kartela.

teko eta ikasteko txapelketa da Europakoa. Beste mundu bat ezagutu eta, aurpegi ezezagunen aurka lehiatuta termometroan non gauden kokatzea da asmoa". Dominez hitz egitea gehiegi hitz egitea litzateke gidariaren ustetan.

## Urratsez urrats

Halaxe egin nahi dute bidea. Espainiako txapelketak txiki samar geratu zaizkio ordea Fernandezi eta nahikoa puntu baditu jadanik beste behin Espainiako eskiatzaile erregularrarena dela erakusteko.

Hala ere, Europakoa baino lehen, Espainiako txapelketa jokatu dute Pas de la Casan, Andorran, martxoaren 23-24an eta iaz lurrera erori eta Espainiako txapela ihes egiten ikusi zueneko arantza-txoa kendu nahiko du.

Enara Fernandezek gorputz eta arima eskaini nahi dizkio eskia, prest dago horretarako behar den izerdi guztia botatzeko eta haren ametsa munduko txapelketa batean parte hartzea da. Badu denbora horretarako oraindik 13 urteko eskiatzaile gazteak.

## Komunikazioa oinarri

Jaitsieretan, aurretik Iraitz joaten da eta interkomunikadore bidez hitz egiten dute elkarrekin. Fernandezek esaten dio mantsoago edo azkarrago joan edo behar duen beste edozer gauza. Etxarrik berriz, bihurtuak eta ikusten duena adierazten dio. Talde kirola da. Enarak jartzen du kirol maila, Iraitzek begiak. Elastiko fosforitoak eramaten dituzte, Fernandezek ikus ditzan. Horren bidez eta komunikazioarekin egiten dute bidea. Pausoz pauso eta metroz metroz.

## TXIRRINDULARITZA.-

## 2015eko denboraldia hasi dute Ostadar SKTko zikloturistek

Joan den astean Zumaiara Jeginako irteerarekin eman zitzaion hasiera 2015eko denboraldiari. Martxotik hasita urriaren amaierara arte 31 irteera egingo ditu Ostadarren zikloturismo taldeak.

## Irteera guztiak

Asteburu honetan Lizartzara joan ziren, 54 kilometro eginenez. Datorren astean Getariara egingo dute 55km-ko irteera. Gainontzeko irteerak hauek izango dira: martxoaren 22an Amezketara 60km, 29an Elgorriagara 75km; apirilaren 5ean Zaldibara 74km, 12an Iraetara 68km, 19an Guadalupera 62km, 26an Ziburura 85km; maiatzaren 3an Ormaiztegiara 85km, 10ean Zerainera 90km, 17an Mandubiara 90km, 24an Ibadinera 100km, 31n Gabiriara 95km; ekainaren 7an



Ostadar SKTko zikloturistak denboraldi hasierako afarian.

Debara 90km, 14an Zegamara 100km, 21ean Ondarroara 115km, 28an Bedaiora 68km; uztailaren 5ean Lizarrustira 100km, 12an Arriaranera 90km, 19an Larraitzera 80km, 26an Bianditzera 64km; irailaren 2an Itsasondora 62km, 9an San Martzialera 68km, 16an Berastegira 60km, 23an Orexara 62km, 30ean Lea-

burura 52km; urriaren 7an Irungo Olaberriara 64km, 14an Aiara 55km, 21ean Zumaiara 62km eta 28an Faro de la Platara 45km.

Igande goizetan egiten dute hitzordua, jubilatuen egoitza parean. Martxoan 9:00etan; apirila, iraila eta urriaren 8:30ean eta gainontzeko hilabeteetan 8:00etan.

## ERRUGBIA.-

## Xabier Rekondo eta Xabi Prieto Euskadiko 21 urtez azpiko selekzioarekin

Beltzak taldeko Xabi Prietok eta Xabier Rekondok debuta egin zuten joan den astean Durangon 21 urtez azpiko Euskal Selekzioarekin. Valentzia izan zuten aurkari eta Beltzakeko jokalariek bigarren zatian atera ziren, taldeari arnasa emateko. Bigarren zatia lehiatuagoa izan zen eta herriko bi mutilen lana erabakigarria izan zen Euskal selekzioak Valentziakoa 26-22 mendean hartzeko. Partida honekin beste aurrerapauso bat eman dute Beltzak taldeko bi mutilek eta Lasarte-Oriako harrobia egoera onean dagoela baieztatzen du bi jokalarien jardun onak.

Bestalde, euren taldeak, Babyauto Zarautz Beltzakek hain zuzen, igoera faserako txartela lortu du jadanik matematikoki. Ohorezko B mailako lidertzan sendo ageri dira eta helburua Espainiako maila nagusira urratsa ematea izango da.



ANTONIO VEGA

## Agenda

Ostirala, Manuel Lekuonan 19:00etan



### Korrikaren aurkezpen ekitaldia

Korrika-ren aurkezpen ekitaldia eta dortsal banaketa egingo da. Horretaz gain, bertsoak, kantak, dantzak eta arropa desfilea izango dira besteak beste, Maider Seguiolak gidatutako ekitaldian. Sarrera doan izango da. Korrika Kulturaren barruan hainbat ikuskizun izango dira gurean eta antolatzaileek haurtan parte hartzeraz deitzen dituzte herritarrek. Korrika martxoaren 22an pasako da herritik.

izango da eta bertsolariak: Ane Labaka, Unai Mendizabal eta Asier Azpiroz. Sarrera Doan.

XIRIMIRI ELKARTEA

Larunbata, 21:00ean

Bertso afari literarioa antolatu du herriko Irakurle Txokoak. Honetan parte hartuko dute Igor Elortza, Uxue Alberdi, Ane Labaka eta Harkaitz Canok. Txartelak 20 eurotan eros daitezke Gure Etxea, Jalgi, Ilargi eta Trumoi tabernetan.

### Musika

BRIGITARREN KAPERA

Ostirala, 19:30ean

Danak Kide elkarteak antolatutako X. Musika Topaketen baitan, gitarra entzunaldia izango da Donostiako Francisco Escudero kontserbatorioko ikasleen esku. Doan.

### Lasarte-Oria

#### Hitzaldia

VILLA MIRENTXU

Asteazkena, 19:00etan

Sahararen inguruko hitzaldia izango da. Udalak diruz babestutako proiektu baten berri emango dute berriki kanpamendutan izandako hainbat kidek.

#### Antzerkia

UDAL-EUSKALTEGIAN

Asteazkena, 18:00etan

"Eta hik zer? antzerki-foruma". Antzerkia hezkuntza metodo eta errealtatea eraldatzeko tresna bezala hartuta, egungo testuinguru sozial eta politikoan bizikidetzeta eta elkarbizitza sustatzeko egitasmoa da. Edozeinen-

tzat irekia, eta bereziki, eguneroko gatazkak gainditzeko jarrera aktibo bat hartu nahi dutenentzat. Antolatzaileak, Donostia 2016 eta Baketik, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz. Aurrez izena eman behar da 688 68 14 66 telefonoan.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata, 19:00etan

"Zu Gabe" antzerkiaren gozatu ahal izango da ATE teatroaren eskutik. Korrika Kulturaren baitako ekintza. Sarrera 5,50 euro.

#### Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala, 22:00etan

"Ospea 20 pausora" filma Okendo Zinema taldearen zine forum saioan.

Korrika kulturalerako egitarauarekin bat eginez. Sarrera 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 17:00etan

"Big Hero 6" filma haurrentzako zinema atalean. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 19:30etan

"Las ovejas no pierden el tren" filma helduentzako zinema atalean. Sarrera 5,50 euro.

#### Bertsolaritza

JALGI

Ostirala, 22:30ean

Korrika Kulturaren baitan, Bertso Korrika saioa izango da gurean. Honetan gai jartzaile Amaia Agirre

### Erakusketa

JALGI

Martxoan zehar

Rudy margolariaren "Itzalaren koloreak" bilduma dago ikusgai.

### Astigarraga

#### Zinema

KULTUR ETXEA

Larunbata, 11:00etan

Haurrentzako "Hurra eta lapurrak" filma eskainiko dute. Sarrera, 2 euro. On-line salgai martxoaren 9tik 13ko 17:00ak arte, eta leihatilan martxoaren 9tik 13ra eta egunean bertan emanaldia hasi baino ordu bete lehenago.

## Herritarren txokoa

#### Korrikaren materiala salgai

Martxoaren 19tik 29ra egingo da Korrika eta martxoaren 22an pasako da Lasarte-Oriatik. Urepelen hasi eta Bilbon amaituko da Euskal Herri osoa zeharkatuko duen ibilbidea. Dagoeneko salgai dago materiala herrian, Geltoki Kaleko AEKren Muntteri euskaltegian.

Neskentzat eta mutilentzat kamisetak, txanoak, jertseak, buffak eta poloak bertan daudela jakinarazi dute AEK-ko kideek. Herritarrek euskaltegitik pasa daitezke materiala ikusi eta erostera, goiz eta arratsaldeko orduetegan.

#### Biyak Bat elkarteko lagunen irteera

Biyak Bat erretiratuen elkarteko lagunek irteera denboraldiari hasiera emango diote martxoaren 16an.

Lehenengo bidai honetan Lizarra eta bere inguruak bisitatuko dituzte. Izenemate epea dagoeneko ireki da. Elkarteko bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek, aldiz, 40 euro. Interesatuak elkarteko

bulegora hurbildu behar dira astelehentik ostiralera, 10:30etik 12:30era. Biyak Bat elkarteak herritarrek eta batez ere, bazkideak animatu nahi ditu irteera parte hartzera.


#### Nikaraguako kontsulatu mugikorra Donostian

Gurean bizi diren Nikaraguako herritarrek aukera izango dute euren paperak eta tramiteak Donostian bertan egiteko Madrilen kokatuta dagoen kontsulatura joan gabe.

Kontsulatu mugikorra deritzona, Aldundia, Esperanza Latina eta El Güegüense elkarten ekimenez ekarri da. Martxoaren 12 eta 13an Donostiako Julio Caro Baroja plazako 2. zenbakian, 3. solairuan izango da. Aurrez hitzordua hartu behar da 665 29 38 67 zenbakira edota consulnic.madrid@gmail.com helbidean.

## Hemeroteka

### Duela 1143 ale



1997ko martxoaren 14ko TXINTXARRI 10. Korrika zela eta aldizkari berezia izan zen. Honetan AEK-ko Gipuzkoako arduraduna zen Mailu Arruti eta herriko euskaltegiaren arduraduna Olatz Urdanpilletari egin zitzaizkien elkarriketak. Hauek azaltzen zuten "Korrika helduen alfabetatzea eta euskalduntzea astindu nahi dituen ekintza da. Bi oinarri horiek dira bere filosofia. Bigarren ezaugarria, AEKrentzako diru sarre-izatea da". Arrutik esaten zuen orduan "lehen urtetako Korrikak eta azken aldikoek ez dute zerikusirik".

Olatzek berriz euskaltegi berriaren inguruan hitz egiten zuen "Muntteri Oztarandik gora dagoen erreka da, Zapal baserriaren ingurukoa. Orain Korrika dela eta, argazki batzuk atera ditugu jendeak erreka non dagoen jakin dezan". Martxoaren 15ean pasako zen Korrika herritik eta Olatzek zion, "Korrikak berak sekulako indarra du. Niretzat oso hunkigarria da, agian barruan nagoelako. Herriko jende euskalduna asko inplikatzeko da. Lasarte-Orian gaitasun handia dago gauzak antolatzeko".

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Gregorio Eizagirre eta Gorka Lasa Tolosaldea Sahararekin eta Saharako Lagunak Taldeetako kideak

# “Laguntza politikoa behar du Saharar herriak”

Saharan egindako lanaz hitzaldia emango dute pleno aretoan asteazkenean, 19:00etan

Gregorio Eizagirre eta Gorka Lasa Tolosaldea Sahararekin eta Lasarte-Oriako Sahararen Lagunak taldeko kideak dira. Asteazkenean Udaletxeko pleno aretoan 19:00etan hitzaldi batean bi elkarteak elkarlanean gauzatutako proiektuak erakutsiko dizkiete herritarrei. Miyic herrian, eskola eta osasun gela eraiki dituzte besteak beste, Tolosa zein Lasarte-Oriako Udalek emandako diru laguntzekin.

Maidar AZURMENDI

Urteak dira Euskal Herrian saharar herri-erriko elkartasun talde ezberdinak lanean ari direla. Tolosaldea Sahararekin eta Lasarte-Oriako Saharako Lagunak dira horietako bi. Hauen elkarlanari esker, lehenengo eskola eta osasun gela eraiki dira Miyic herrian. Proiektu hauek gauzatzeko bi herrietako Udalek diru laguntzak eman zituzten eta “dirua ondo inbertitu” dela erakusteko, hitzaldia emango dute asteazkenean.

## Tolosan hasi zen eskolaren ekimena. Nolatan?

Tolosaldea Sahararekin taldea duela 15 urte hasi zen lanean batez ere, hezkuntzarekin lotutako proiektuetan laguntzeko helburuarekin.

Duela 7 urte hasi ginen eskola hau eraikitzeke lanetan. Halako proiektu handi bat gauzatzeko diru asko behar genuen eta Tolosako ikastolak aukera eman zigun abenduan antolatzen duen bigarren eskuko gauzen merkatu txikian parte hartzeko. Bertan 7.500 euro bildu genituen lehenengo urtean. Diru asko zen eta urtero bertan egonda berdina eskuratzeko aukera izanda, posible ikusi genuen eskola eraikitzea.

## Non dago eskola?

Frente Polisarioarekin hitz egin eta esan genien asmoa eskola lurralde liberatuetan egitea zela. Zergatik? Saharak lortzen badu independen-

tzia, eskolak hor jarraituko duelako eta ez kanpamentuetan, horiek noizbait eraitsiko dira. Arrazoiak pisuzkoa iruditu zitzaizkion eta Miyic herrian eraikitzeke eskaera egin zuten, ia Mauritaniar, Sahara erdi aldean. Hango arkitektoari proiektua eskatu eta 45.000 euroko proiektua aurkeztu zuten. Elkarre txikia ginela eta, urtero 10.000 bat euro lortzea posible ikusten genuen, baina gehiago behar zen hasteko. Tolosako ikastolak faltan genuena utzi zigun urtero azoka txikian egoteko konpromisoaren truke. Bultzada horrekin hasi ginen.

## Nola sortzen da harremana Lasarte-Oriako taldearekin?

2009an lehenengo Sahara Maratoian ezagutu ginen. Tomas eta Gorkarekin harreman estua sortu zen. Proiektuan inplikatu eta bi Udaletan laguntza eskatzeari ekin genion. Ordurako diru kopuru txikia falta zitzaigun, 3.500 euro inguru eskola bukatzeko. Lasarte-Oriako udalak 3.400 euro eman zizkigun eta eskola bukatu genuen. Eraikinaz gain, materiala ere jarri dugu.

## Nolakoa da eskola?

Hiru gelako eskola da, 3 eta 13 urte arteko 120 umerentzat. Hala ere, herri nomada da eta eguraldiaren arabera, ume gehiago edo gutxiago joaten direla eskolara.

2012ko udan joan ginen umeen bila egin ohi dugun bidaiaren baitan. Lan batzuk egiten ditugu kanpamentuetan eta umeekin (350) egiten dugu

Euskal Herri-

ra bidaiak. Egun batzuk gehiago han egiteko aukera genuenez, eskola ikustera joan ginen Gorka eta biok. 2 eguneko bidaiak deserosoa izan zen. 800 kilometroko distantzia da, baina hori basamortuan asko da.

Gainera, bahiketa batzuk gertatu zirela eta, segurtasun neurriak oso zorrotzak ziren eta militar jeep batek egin zuen bidaiak gurekin. Aldaketa handia izan zen, izan ere, ordura arte lasai mugitu izan ginen kanpamentuetan.

Hara iristean eraikina besterik ez genuen ikusi, oraindik barrutik gela banaketa besterik ez zegoen eginda. Sentsazioa hotza izan zen. Harrera egin ziguten agintariak, eskerrak eman eta beharren zerrenda eman ziguten bueltan. Kotxe bat behar zuten umeak eskolara eraman ahal izateko. Nondak izaki, batzuk nahiko urrutiti bizi dira. Konpromisoa hartu genuen Jeep bat lortzeko.

## Ez zen eskaera bakarra izan...

Ez, beraiek ere oso beharrezkoa ikusten zuten osasun gela bat. Gertuen zuten erietxea 100km baino gehiagora dagoelako. Erronka handia zen berriz, 30.000 euro lortu behar genituen.


Udaletan eskatu eta urte bete pasata, Lasarte-Oriatik 7.700 euro jaso genituen. 2014ko urrian, Tolosakoak 5.000 euro eman zizkigun kotxea erosteko.

Kotxea erosi zen eta osasun gela dagoeneko hasita zegoenez, guk lortutako laguntza horiekin bukatzea lortu zen. Bi eraikuntzek Euskal Herria izena dute.

Erietxe txiki honek, erditzeko gela txukun bat du, beste bat kontsulta pasatzeko eta erizaintzat beste bat. Gelatxo bat du ere, eraikina zaintzen duen pertsonarentzat.

## Osasun gela martxan dago?

Abenduan han izan nintzen eta “modu ofizialean” inauguratu genuen. Oso pozgarria izan zen bisitan eskola bere eguneroko



martxan ikusi ahal izatea ere. Tamalez, mina batek eztanda egin zuen handik egun batzuetara eta zauritu horiek artatzeko erabili zen lehenengoz Euskal Herria osasun gela.

## Zein da hurrengo erronka?

Erremolke frigorifiko bat erosi nahi dugu materiala eta elikagaiak bertaraino eramateko. Orain kontainerak alokatzen dira eta hauek berehala hustu eta banaketa oso azkar egin behar dute. Erremolke berria Miyicera zuzenean joango litzateke. 8.000 euro lortzeko lanean ari gara. Dinamika horretan sartuta gaude izan ere, beharrak asko dira. Maiztean elikagaiak eta eskolarako materiala eramango ditugu.

## Umeak ere laster etorriko dira...

Azken urteetan bezala, udaran haurrak ekartzeko familiak behar dira. Gipuzkoan 60 inguru falta dira. Lasarte-Oria 2. Azken urte hauetan oso zaila izaten ari da familiak lortzea nahiz eta askoz haur gutxiago ekarri. Guztira, 2009an 9.000 ume ateratzen ziren kanpamentuetatik eta egun 5.000 dira. Aldea oso handia da.

Esperientzia oso polita dela esango nuke. Ez da beti erraza izaten, batez ere lehenengoz etortzen diren hurrekin, baina familiak animatu nahi geni-

tuzke esperientzia hau probatzera.

## Zein da kanpamentuetako egoera?

Momentu honetan laguntza politikoa eskatzen ari dira. Kanpamentuetako gazteak armak hartzeko prest daude, oso nekatuta daude 40 urtez luzatzen den egoera honekin. Inork ez die kasurik egiten, Espainiako gobernuek ez ikusiarena egiten du...

Gure ustetan lurralde okupatutik egin behar da lan, bertako jazarpena handia izan arren. Protesta ekintzak ugaritzen ari dira eta egoera benetan zaila da. Guk salatzen dugu gobernuek duten jarrera eta behingoz gaia hartzea eskatzen dugu.

Horrekin batera, Hassanari elkartasun guztia azaldu nahi diogu. Hassana Aalia ekintzaila ez da isilik geratu, bere herriaren egoera salatu du hemen. Hernanin guztiz integratuta dago eta gure ustez, ez da kasualitatea bizitzen ari den egoera. Bi hilabetetan jakingo da zer gertatzen den, bidaltzen badute, espetxea izango du zain.

## Zein izango da hiltzaldiaren helburua?

Udalak guztira 11.000 euro eman dizkigu eta diru horrekin egin duguna herritarrei erakutsi nahi diegu asteazkenean pleno aretoan 19:00etan izango den hitzaldian.